

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna.

Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da.

Dokumentu honetan Nafarroako toki eta lurralde entitateok emakumeen kontrako indarkeriari buruzko gure iritzia eman nahi dugu.

Nafarroako toki eta lurralde entitateak

Nafarroako gai publikoak kudeatzen dituzten erakundeak dira, adibidez, udalak.

Dokumentu hau azaroaren 25erako idatzi dugu.

Azaroaren 25ean

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da.

Nafarroako toki eta lurralde entitateak emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kontra gaude eta indarkeria mota hau zigortu behar dela uste dugu.

Munduan indarkeriarik ez egotea eta emakumeak, haurrak eta neskatokak beldurrik gabe bizitzea nahi dugu.

Aurten batez ere, indarkeria bikarioari buruz hitz egin nahi dugu.

Indarkeria bikarioa gizon batek emakume bati min egiteko bere seme-alabak erasotzen dituen da.

Gizonak haur hauei min egiten die
badakielako horrela emakumeak
asko sufrituko duela.

Indarkeria bikarioa
matxismo modu oso larri bat da.
Batzuetan, emakumeari min egiteko
gizonak bere seme-alabak hiltzen ditu.

Indarkeria mota honekin
emakumeei eta haien seme-alabei
min handia egiten zaie.
Egiten zaien mina oso handia da
eta askotan ez da inoiz desagertzen.

Indarkeria bikarioan,
erasotzaileak uste du seme-alabak
ez direla amarengandik independenteak.
Horregatik, badaki seme-alabei min egiten badie,
emakumeari ere min egiten diola.

Gainera, gizarteak
indarkeria mota hau gertatzea ahalbidetzen du.
Askotan gizarteak ez die sinesten
indarkeria matxista mota hau
jasaten duten emakumeei.

Horregatik dokumentu honek
honako izenburua du:

Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da.

Honek esan nahi du
askotan gizarteak uste duela
emakumeek indarkeria bikarioa sufritzen dutela diotenean
arreta deitzeko egiten dutela
eta antzerkia egiten ari direla.

**Hildako adingabeak amaren aurkako
genero-indarkeria kasuetan Espainian**
izeneko txosten bat dago.

Txosten honek dio
2013. urtetik 2024ra arte
gizonek 63 seme-alaba hil dituztela
haien amei min egiteko.
Hildako haur hauek
indarkeria bikarioaren biktimak dira.

Badakigu 2024an
jada 10 haur hil dituztela
indarkeria bikarioagatik.

Oso garrantzitsua da
gai honekin zer gertatzen ari den ongi ulertzea
eta egoera hau aldatzeko
ekintza zehatzak martxan jartzea.
Honi **politikak aplikatzea** esaten zaio.

Ez dugu indarkeria bikarioaren
biktima gehiago egotea nahi.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Babesteko

Lege Organikoak izeneko lege bat dugu.

Lege honek dio indarkeria bikarioa jasan duten hurrek ezin direla berriz haien aitarekin elkartu.

Baina badakigu hau oso kasu gutxitan betetzen dela. Askotan epaileek, emakumeen kontrako indarkeriarekin zerikusia duten erabakiak hartzerakoan, gizonari arrazoia ematen diote. Emakumeei gutxiago sinesten diete.

Justiziak aurrerapenak egin ditu gai honetan baina oraindik asko falta da lege hau betetzeko.

Indarkeria matxistaren biktimak babestu behar ditugu.

Oso garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurka borrokatzea, adibidez:

- Indarkeria bikarioa.
- Indarkeria psikologikoa.
- **Manipulazioa,** hau da, gizonak emakumea kontrolatzen duenean eta emakumeak gizonak nahi duena egiten duenean.
- **Indarkeria instituzionala.** Adibidez, lanean emakumea diskriminatzen denean emakume izateagatik bakarrik.

Nafarroako toki eta lurralde entitateok ere indarkeria matxista hau gehiago ez existitzeko eta emakumeak, umeak eta neskatok bakean bizitzeko lan egin behar dugu.

Erakunde hauetatik honako hau lortzeko lan egingo dugu:

- Gizarteak indarkeria bikarioa zer den eta zein ondorio dituen jakitea.
- Polizia, osasun arloko profesionalak eta beste profesional batzuk indarkeria bikarioaren kasuak detektatzeko formazioa izatea.
- Indarkeria bikarioaren biktimak babestea eta behar duten laguntza ematea. Adibidez, laguntza psikologikoa, juridikoa edo soziala. Laguntza hauekin errazagoa egingo zaie aurrera egitea.
- Indarkeria bikarioaren kasuren bat dagoenean, biktimak behar duen laguntza azkar ematea.
- Berdintasuna hobetzeko politikak egitean, hau da, gizartean berdintasuna lantzen denean, indarkeria matxista kontuan hartzea.

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean,
emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko
eta batez ere, indarkeria bikariorik gabeko
gizartea lortzeko
lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Atsedetik hartu gabe lan egingo dugu
emakume, haur eta neskatu bakoitzak
bakean, beldurrik gabe, askatasunez
eta autonomia osoarekin bizitzeko .

Texto adaptado y validado

por la **Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra**
de **ANFAS**

Logo europeo de lectura fácil: "© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe.

Más información en <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>

oacna
Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra

 **anfas**

 **Plena**
inclusión
Navarra

